



PRESTAKUNTZA SENDIAN EKIMENAREN BAITAN

Mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten ahaideentzat emango dituzte ikastaroak 2

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO


hitza



Asteartea
2008-01-08

VIURTEA 1.330.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



HITZA

HELENA ORKOIEN SOPRANOA

«Eszenatokira irtetean erlaxatu egiten naiz»

IBARRA Espainiako Musikari Gazteen Lehiaketan, ahots lirikoen atalean irabazlea izan zen soprano ibartarra. «Oso gustura» dago 6

OROITZ UNSAIN EUSKAL HERRIKO TRIKITILARI TXAPELKETAKO IRABAZLEA

«Garaipena lortzea ez genuen espero, baina itxaropen apur bat bagenuen» 3

Eskualdeko hiru eskola ariko dira V. Berria Txapelketan

TOLOSALDEA Aurrera Saiaz, Zazpi-Itturri eta Erniope lehiatuko dira pilota txapelketan 5



Liburutegian txikizioak egin zituzten lapurrek. HITZA

Lapurreta egin edo indarrez sartu dira hainbat lekutan

IRURA Zaharren Biltokian eta Laskibar industrialdeko enpresa batean lapurtu dute 4

lortu ezazu
hitzaren harpidedun
berri bat

garenak
x2
izateko



eta **opari bana**
jasoko duzue

aukeratu
gustuko
duzun oparia*

BEZERO ARRETA ZENBAKIA:
902 820 201

astegunetan: 08:30 - 20:30
larunbatetan: 09:00 - 13:00

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**

Tolosako Kultur Etxean
HITZALDIAK

Kontzientziaren iratzarpena

Urtarrilak 10

Zer gara? pertsonak ala makinak...

Nor gara? Kontzientzia, pertsonalitatea, egoa!

Urtarrilak 11

Hitza egin dezagun Chacra izeneko zentro energetikoetaz

Urtarrilak 14

Chacren psikologia ezkutua

Tel.: 688 607 816 - 688 642 923

Laburrak**Inauterietako txarangen bilera izango da bihar**

TOLOSA ● Jai batzordeak deituta, bihar arratsaldeko zazpitan Inauterietako txarangen bilera izango da. Hau Tolosako Kultur Etxean egingo dute.

Charo Bera Erroren lanak ikusgai Aranburun

TOLOSA ● Charo Bera Erroren pintura erakusketa ikusgai da otsailaren 16ra arte, Tolosako Aranburu Jauregian. Ohikoa den bezala, 17:30etik 20:30era bitartean ikusi ahal izango dira, *Zuhaitza: bizia eta kolorea* izenpean bildutako artelanak.

Abiba diskojaja, larunbat honetan, Beotibarren

TOLOSA ● Larunbat honetan, hilak 12, Abiba diskojaja izango da Beotibar pilotalekuan. Gerriak eta hankak astintzeko aukera izango da beste behin ere eritimo dantzagarririk. Saioa 22:00etan hasiko da eta goizaldeko bostak arte luzatuko da.

Villarrealen 'Paralelo 42' erakusketa ikusgai dago

TOLOSA ● Jabier Villarreal Armandarizen argazki montajeen erakusketa ikusgai da egun hauetan. Interesa dutenek hilaren 26a baino lehen hurbildu beharko dute Tolosako Aranburu Jauregia. Villarrealen lanak *Paralelo 42* izenaren baitan biltzen dira.

Mendi federatu txartela ateratzeko aukera

TOLOSA ● Alpino Uzturren, astelehena eta asteazkenetan 19:30etatik 21:00etara, 2008 urteko mendi federatu txartela ateratzeko aukera izango da.

Mikel Urdangarinen kontzertua ostiralean

TOLOSA ● Mikel Urdangarinek kontzertua eskainiko du ostiralean Leidor antzokian. Emanaldia 20:30ean hasiko da eta *Anek idatzi dit zutaz* bere azken lana aurkeztuko du bertan. Sarrerak salgai daude Servikutxan eta Kutxanet-en 10 eurotan.

Txangoz txango aurten ere Alpino Uzturrerekin

Tolosa » 2008ko ibaldien egutegia prestatu dute mendi elkarteok; hasteko, hilaren 13an Bidart eta Ustaritzera joango dira

eta Etxabarrira joango dira. Hurrengo txangoa martxoaren 16an izango da, Larrea-Arantzazura joango dira. Apirilaren 20an Urdax eta Arraiozera joango dira. Maiatzaren 11n Esterenzubi eta Iratira hurreratuko dira. Hilabete beranduago, ekainaren 8an, Arteta eta Uhartea Arakil bisitatuko dituzte.

E. EZEIZA

Alpino Uzturre mendi elkarteak aurten egutegia prestatu du. Hau da, zehaztu ditu, urte honetan zehar egingo dituzten irteerak. Hilabete bakoitzerako bat antolatuko dute, abuzturako izan ezik. Beraz, lehendabizikoa hil honetan bertan egingo dute, urtarrilaren 13an. Bidart-Ustaritzera igoko dira, eta aurreikusitakoaren arabera, bost orduko txangoa izango da.

Otsailaren 17an Venta Zunbeltz

Uztailerako hiru egunetako irteera antolatu dute Pirinioetara. Hilaren 25ean abiatuko dira, eta 27an itzuli. Iraileko txangoa ere bi egunetako izango da, 13 eta 14 bitartekoa. Egunduetan Belaguara joango dira. Urriaren 26an berriz, Sara eta Zugarramurdi bisitatuko dituzte. Azaroaren 16an, Urbasa eta Goñi. Azkenik, urteari amaiera emateko, abenduaren 14an Beasaindik abiatuta Matxibentara joango dira babarrun jatera.

Mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten ahaideentzat ikastaroak

Tolosa » Foru Aldundiak antolatuta ditu Sendian ekimenaren baitan; hilaren 14an hasiko dira eta adituak izango dira hizlari

» EGITARAU**Urtarrilak 14, astelehena**

■ **15:00.** Mediku bat mintzatuko da gai honen inguruan: nor da mendeko pertsona, mendekotasuna dutenen arazoak.

Urtarrilak 15, asteartea

■ **15:00.** Icavi Bikain izango da hizlari. Gaia: Erlaxazioa eta komunikazio teknika.

Urtarrilak 16, asteazkena

■ **15:00.** Gloria Martin izango da hizlari. Gaia: Osasun, erizain eta laguntza tekniko buruzko arloak.

Urtarrilak 17, osteguna

■ **15:00.** Tolosako udaletxeko zerbitzu sozialak zuzenduta, inguru-nean egokitzeko gizarte baliabideak izango dira aztergai.

Urtarrilak 18, ostirala

■ **15:00.** Hurkoa Fundazioak lege eta etika arloko alderdiak azalduko ditu.

ERREDAKZIOA

Tolosako Zentru Sozialak hilaren 14etik aurrera hainbat prestakuntza ikastaro eskainiko ditu. Hauek Sendian programaren baitan antolatuta ditu Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak. Jardunaldiak mendekotasuna duten adineko pertsonak zaintzen dituzten familiakoei zuzenduta daude. Ikastaro horien helburua da adineko mendeko pertsonak zaintzen dituztenei laguntza eta prestakuntza eskaintzea.

Zure nagusiak maite dituzenez hobeto zaintzen ikasi lelopean, datorren astean izango dira saioak. Saioetan parte hartu nahi dutenek informazio gehiago eskatu dezakete Udaleko gizarte zerbitzuetan.

Ikastaroaren edukia

Prestakuntza horretan medikuntza, psikologia, lege eta gizarte arloetako gaiak eta laguntza teknikoak buruzkoak landuko dira. Gai horietan adituak direnek emango dituzte hitzaldiak. Ikastaroak Gizarte Politikako Departamentuak antolatuta ditu, udaletako Oinarriz-

ko Gizarte Zerbitzuen lankidetzarekin eta baita Matia Fundazioko Instituto Gerontologikoa, Inge-maren lankidetzarekin ere.

Egitasmoaren nondik norakoak

Sendian programa abian jarri zen orain dela 11 urte eta gaur egun ia Gipuzkoako herri guztietara za-

baldu da. 83 udalerriri dira Foru Aldundiarekin lankidetzak hitzarmena sinatuta dutenak. Ekimen horren bidez informazioa eskaintzen zaie adineko mendeko pertsonak zaintzen dituztenei, beraien burua behar bezala zaintzeko eskura dituzten baliabideen berri izateko. Hala, familientzako prestakuntza ikastaroak eskaintzen dira eta horien bitartez adineko pertsonak zaintzeko beharrezkoak diren ezagupenak jakinarazi.

Eskaintzen den beste jarduerak bat laguntzarako taldeak dira, adineko mendeko pertsonak zaintzen dituzten familien artean komunikazioa eta harreman lantzeko sortutakoak.

Programak laguntza psikologikoa ere eskaintzen du. Hala, tratamendu psikologikoko banakako saioak eskaintzen dira, egoera berri eta aldakor bati aurre egiten laguntzen dutenak, familia zaintzaileetan sor daitekeen estres eta estatusun egoera kontuan hartuta. Azkenik, Sendian programak atsedenera buruzko beste baliabide batzuk ere jasotzen ditu.

Baliabide horiek udaleko oinarriko gizarte zerbitzuen bidez urte osoan eskatu daitezke eta eskuratu ahal izateko baldintza hau bete behar da: programa honen bane dauden udalerrietako batean eta adineko mendeko pertsona batekin bizitzea.



Tolosakoa garaile Errege Bezperan

XAKEA ● Errege Egun Bezperan Aurrera Elkarteak urtero Jose Antonio Insaustiren omenez antolatzen duen xake txapelketa jokatu zuten. Hogeita lau jokalarik hartu zuten parte bertan, eskualde osoetik etorrira. Txapelketa xake azkarrean jokatu zen, jokalariei eta partida bakoitzeko bost minutura. Goiz osoan gelditu gabe aritu eta gero Sabino Etxeberria tolosarra izan

zen txapelkun, finala Josu Mujika ibartarrari irabazi eta gero. Podiuma Pablo Zufiga altzotarrak osatu zuen. Kadete hoberenaren saria Aitor Alkorentzatzat izan zen eta infantil hoberenarena Aitor Villanarentzatzat, biak Villabonakoak. Bestalde, aurten ere sari berezi bat banatu zen jokalarien artean. Manex Galparsoro atzotarrak jaso zuen. HITZA

Kimetz

Mutil arropa
Kale Nagusia 13
943 24 94 96

Neska arropa
Kale Nagusia 21
943 67 38 62

www.kimetz.eu

eskaintzak
-%30

E Elkarrizketa

OROITZ UNSAIN › Unsain Anaiak taldeko kidea

Kultura › Oroitx Unsain Tolosarrak, Xabier Etxaniz trikitilariarekin batera, Euskal Herriko Trikitilari Txapelketan garaipena lortu berri du Azkoitian.

HARRIET BELLOSO

2007an Euskal Herriko jai eta plaza ugari alaitu ditu bere anaiekin osatzen duen Unsain anaiak trikitixa taldearekin. Iazko abenduan, Xabier Etxaniz bikote zuela, Euskal Herriko Trikitilari Txapelketan garaipena lortu zuen. Txapelketari eta trikitixaren egoerari buruz hitz egin du tolosarrak pandero-jotzaileak.

Espero al zenuten maila honetako txapelketa bat irabaztea?

Aurtengo edizioan Xabier Etxanizekin hartu dut parte txapelketan. Beste urteetan nere anaiekin jotzen nintzen lehiaketetara baina gauzak espero ez genuen bezala atera dira. Garaipenaz duzu inoiz espero, baina itxaropen apur bat bagenuen.

Nolako maila egon da aurtengo edizioan?

Aurtengo maila apartekoa izan da. Pasa den edizioetakoa oso onaitzen da ere, baina aurtengoa esan dudan bezala bikaina izan da.

Txapelketa honeterako abesti asko prestatu dituzue? Zuen abesti propioak ala ezagunak lan-tzen dituzue?

Lau abesti mota landu behar ditugu: fandangoa, arin-arina, trikitixa eta porrusalda. Finalean epaileak fandango berdina ezartzen dute bikote guztientzako. Beste abesti guztiak norberak hautatzen ditu.

Zenbat denbora egon zarete prestaketa lanetan?

Hilabete bat lehenago hasten gara probaketekin. Finalerdirako eta finalerako abestiak prestatu behar dira eta horrek lan handia suposatzen du.

Zenbagarren edizioa izan da zuentzat?

Aurten lehen aldian izan da Etxanizekin parte hartzen nuela. Nere anaiekin beste lau ediziotan parte hartu dut.

Aurtengoa zuentzako txapelketa bereziena izan da edo bereziagoak egon dira?

Anaiekin parte hartu dudanean sentsazio desberdinak izan ditut. Urte asko daramatzagu jotzen eta oso ondo ezagutzen dugu elkar. Trikitilari berri batekin denbora behar da ondo ezagutzeko eta abestiak prestatzeko. Pandero-jotzaile baten lana trikitilari laguntza eta lasaitzea da eta hori hasieran ez da erraza.

Ze desberdintasun dago txapelketa eta kontzertu baten artean?

Txapelketa oso gogorra da, eta nahiz eta lau pieza soilik jo behar



Ezkerrean Oroitx Unsain, eta eskuinean Xabier Etxaniz, saria jasotzen. HITZA

«Garaipena ez genuen espero, baina itxaropen apur bat bageneukan»

ditugun kontzertu baten baino askoz okerrago amaitzen dut. Kontzertuak askoz lasaia goak dira, nahi ditugun pieza guztiak jotzen ditugu eta azkenean festa giro batean zaude. Txapelketa batean epaileak daude eta askoz urduria go jotzen dugu. Publikoa ere epaile izaten da askotan eta hori ez da oso eroso, ezta?

Nola sortu zen zuen taldea? Ze asmorekin hasi zineten?

Anai guztiok edozein momentu aprobetxatzen genuen etxean jotzeko, batez ere bazkarietan eta famili guztia biltzen ginenean. Zer-

bait interesgarria sortzeko aukera zegoela uste genuen eta horregatik 2007 hasieran taldea eratu genuen. Trikitixa mundua ezagu-

Bosgarren aldian izan da txapelketan Oroitx Unshaintzat, baina lehena bere anaia gabe

tzen zuen lagun bat konbentzitu genuen batera jotzeko.

Zenbat denbora daramazue emandialdi eskaintzen?

2007an hasi ginen eta esperientzia

politia izan da guretzat. Jendearen harrera nahiko ona izan da eta oso gustura egon gara kontzertuetan. Egun txarrak egon dira baita ere, baina orokorrean oso pozik geratu gara.

2008 urterako ze helburu dituzue?

Zaila izango da baina plaza gehiago egitea gustatuko litzaiguke. Gauza batzuk hobetu behar dira ere.

Panderoa edo trikitixaz gain, beste instrumenturen bat jotzen dituzue?

Taldean gitarra, akordeoia, batera

eta trikitixa dauzkagu momentu honetan, baina hurrungo kontzertuetarako baxua sartu nahi dugu. Momentu honetan talde handiak behar direla esan ohi da, baina gure iritzia guztiz kontrakoa da. Instrumentu asko badaude talde batean azkenean soinua masifikatu egiten da, eta musikariak onak ez badira dena gaizki ateratzen da. Talde handi batekin ez zaituzte herri txiki baten kontratatuko, beraz plaza apaletara egokituko dena izango litzake aproposena.

Normalean gazteak gitarra edo akordeoia jotzen ikasten dute. Zergatik hasi zinen panderoa jotzen?

Gure etxean betidanik egon da trikitixa giroa eta txikititak gurasoak instrumentuak jotzera bultzatu gaituzte. Ni panderoa jotzen ikasten hasi eta handik gutxira anai zaharrena trikitixarekin hasi zen.

Nola ikusten duzue taldean trikitixaren egoera? Oraindik harrera ona du edo fama gaitzen ari da?

Argi dago trikitixa indarra ari dela galtzen. Duela urte batzuk adibidez Maixa eta Ixiarrek izugarriko arrakasta zuten eta jotzen zutenean plazak goraino betetzen ziren. Festa ikusgarriak izaten ziren eta mundu guztia dantzan aritzen zen. Egun, hori ezinezkoa da. Ohitura galdu egin da eta gainera askoz trikitilari gutxiago daude. Jo dugun plazetan adibidez oso harrera ona izan dugu. Udara hone-

Bere anaiekin batera Unsain Anaiak trikitixa taldean jotzen du herri ugarietako festak alaituz

tan Lekeition eman genuen emaldian jende mordo gerturatu zen. Berbenetan jendeak ez du dantza egiten, eta hori pena bat da.

Orain Diskoiaik daude modan...

Hori da. Herri euskaldunetan harrera oso ona izaten da, baina euskal ohitura gutxi dagoen herrietan gauzak desberdinak izaten dira. Jendeak agian ez dakit dantza egiten eta zaila da giroa alaitzea.

Zein da zure iritzia 'Gose' proiektu desberdin horri buruz?

Niri betiko trikitixa gustatzen zait, tradizionala. Ez dakit nolako harrera izan duen talde honek, baina nik gauza moderno hauek ez ditut oso gustuko. Batzuetan berritasuna lortu nahian gauza arraroak eta maila baxukoak egiten dira. Trikitixa gustuko duenak trikitixa entzungo du, eta soinuen elektronikoak gustuko dituenak aldiz soinuen elektronikoak. Nahastu behar ez diren gauzak direla uste dut.

Nolako izango da trikitixaren etorkizuna?

Trikiti giroa pixkat galdu egin da, baina oraindik berbenetako oso baliagarria da. Lehen aipatu dudan bezala jendearen harrera baina, trikitilari falta da arazo larriena. Musika berriak eta diskoiaik min asko ari dira egiten tamalez.

Hainbat lekutan lapurreta egin edo indarrez sartu dira azken egunetan

Irura » Zaharren Biltokian eta Laskibar industrialdeko enpresa batean lapurreta egin dute eta liburutegian sartu egin dira lapurrak

IMANOL GARCIA

Azken egunetan Iruran hainbat lapurreta egin edo indarrez sartu dira zenbait lekuetan. Zaharren Biltokian eta Laskibar industrialdeko enpresa batean egin dituzte lapurretak eta liburutegian txikizioak eragin dituzte.

Zaharren Biltokian ostegunetik ostirala bitarteko gauean sartu ziren. Ateko zerraila taladro batekin zulatu ondoren eta alarma itzali ondoren, dirua ostu zuten lapurrak. Ateak eta armairuak ere txikitu zituzten, gela ezberdinetara sartzeko eta armairu barruan zenbait zegoen begiratzeko. Ertzaintzaren arabera, lapurrak gertukoak edo zenbait informazioaren berri izan behar zuten, alarma non



Liburutegietan hainbat txikizio egin dituzte lapurrak. HITZA

zegoen eta hori itzaltzen jakin zutelako.

Liburutegian lapurrak noiz sartu ziren ez dakite zehazki. Zaharren Biltokian sartu ziren gau berdinean ez zela izan ziurra da, ostiral goizean irekita egon baitzen liburutegia. Igande arratsaldean konturatu ziren liburutegira sartu zirela lapurrak. Lehenengo solairuko terrazatik sartu ziren, leihoko pertsiana puskatuz.

Dena miatuta

Joxi Lasa Udaleko zerbitzuen arduradunak azaldu duenez, «ez dute ezer lapurtu, baina txikizio handiak eragin dituzte. Ez dakigu zeren bila sartu diren zehazki, baina guztia miatzen aritu dira». Atzo normaltasunez egon zen irekita liburutegia.

Zenbait etxetan ere lapurreta egiten saiatu omen dira ere. Azken hiru hilabeteetan beste hainbat lekutan ere lapurretak izan dira. Ikastolatik, besteak beste, ordenagailuak ostu zituzten azaroan.

Kilometroak 2008koek tonbola martxan jartzeko jendea behar dute

Irura » Tolosako Inauterietan jarri nahi dute tonbola; Tolosako dendan eta lurako biltegian, beharpenak bihurtik

I. GARCIA

Kilometroak 2008ren egitasmoaren baitan tonbola jarriko dute martxan. Urriko ekitaldi nagusia jartzeaz gain, beste hainbat alditan ere jartzeko asmoa dute. Tolosako Inauterietan egingo dute lehenengo. Horretarako, boluntarioak behar dira. Antolatzaileek boluntarioak bilera batera deitu dituzte. Etzi egingo dute, 20:15ean, Ikastolako aretoan.

%40ko beharpenak

Kilometroen Tolosako dendan eta Irurako biltegian beharpenekin hasiko dira bihurtik aurrera. Bertan salgai dauden produktuak %40ra arteko beharpenak izango dituzte.

Eguberrietan emaitza onak lortu dituzte pultsulariek

Villabona-Zizurkil »

Danena-Olaederra pultsulari taldekoek maila handia ematen jarraitzen dute txapelketetan

ERREDAKZIOA

Danena-Olaederrako Pultsulari Taldeak emaitza onak lortzen jarraitzen du. Hiru txapelketetan parte hartu du pasatu berri diren Eguberrietan eta guztietan bikain aritu da. Zaragoza Hiriko Txapelketan eta San Valerio Txapelketan lehenengo postua lortu zuen taldeak. Bestean, Olaederra kiroldegian antolatu zen Eguberrietako txapelketan, maila guztietan lehenengo postua lortu zuten eskualdeko pultsulariek.

Zaragoza Hiriko eta San Valerio



Olaederrako kiroldegian Eguberrietako Trofeoan aparte hartu zuten pultsulariak. HITZA

Txapelketan taldekako lanaz gain, banaka ere maila ezin hobea eman zuten taldeko pultsulariek. Teddy Martinezek lehenengo postua lortu zuen; Jon Tecedor-ek bigarrena eta Igor Sasiainek hirugarrena.

Mikel Quintanak ere erakustaldi ona egin zuen.

Etxean ere ezin hobe

Olaederra kiroldegian antolatutako Eguberrietako Txapelketan,

etxekoez gain Galdakao, Basauri eta Zarauzko halterofiliako taldeek parte hartu zuten.

Danena-Olaederrako kideek ondorengo emaitzak lortu zituzten: teknika mailan, Adrian Sasiainek

lehenengo postua lortu zuen, Kellyam Quintanak hirugarrena, Asier Gallegok bosgarrena eta Unai Calvok seigarrena. 15 urte azpiko mailan, Jokin Urkizuk lortu zuen lehenengo postua, Adrian Sasiainek hirugarrena eta Kellyam Quintanak laugarrena.

17 urte azpiko mailan Igor Sasiainek, Mikel Quintanak eta Julen Intxaustik lortu zituzten, hurrenez hurren, lehenengo hiru postuak. Senior mailan Jon Tecedor-ek lortu zuen lehen postua.

Markei dagokionez, Jokin Urkizuk 15 urte azpiko mailan EAEko hiru marka berri lortu zituen: 78 kilo arrankadan, 98 kilo bi denboratan eta 176 kilo total olinpikoan.

Horrez gain, Igor Sasiainek eta Mikel Quintanak 17 urte azpiko mailan Espainako markarik onenak lortu zituzten.

txokoa **h**



antzezlanerako
5 sarrera pare
zozketan, deitu eta eskuratu

urtarrilak 11. ostirala, 20:00etan
Donostiako Antzoki Zaharrean



gonbidatzen zaituzte

kantandirako
5 sarrera pare
zozketan, deitu eta eskuratu

Mikel Urdangarin

ostirala, urtarrilak 11. 20:30ean
Tolosako Leidorren



HITZAren harpidedunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: **943 65 56 95**



luz, Aurrera-Saiaz Berria Txapelketako norgehiagoka batean. N. LIZARTZA

» DATUAK

- **Txapelketa.** V. Berria Pilota Txapelketa.
- **Eskualdeko parte-hartzaileak.** Zazpi-Isturri (Amezketeta), Aurrera-Saiaz (Bidegoian-Tolosa), Erniope (Alkiza).
- **Lehen partida.** Lehen partida hilaren 12an Munitibarren, Markina eta San Miguel aurrez aurre.
- **Eskualdeko lehen partida.** Erniope Mallabiaren aurka, hilaren 19an. Lekua zehazteke.
- **2. kanporaketa.** Otsailan izango dira eta Aurrera-Saiaz eta Zazpi-Isturri ariko dira.
- **Finala.** Hernanin, apirilaren 6an.
- **Jokalari kopurua.** Eskola bakoitzeko 6 ariko dira, binaka, eta hiru maila ezberdinetan. Adinez nagusienak dira (kadeteak, jubenilak eta nagusiak).

V. Berria Txapelketan etxeko hiru eskola ariko dira

Pilota » Aurten ez da Leitzako Aurrera pilota eskola ariko, baina bai Aurrera-Saiaz, Zazpi-Isturri eta Erniope.

NEREA URBIZU

Berria Pilota Txapelketaren aurkezpena asteburuan izan da. Aurten 5. urtea da eta eskualdeko pilotariak ez dira faltako. Aurtengoan, ez da Leitzako Aurrera pilota eskola ariko, baina bai Aurrera-Saiaz, Zazpi-Isturri eta Erniope.

Joan den urtean Zazpi-Isturri eta Aurrera-Saiaz ez ziren gaizki ibili txapelketan eta horregatik, bi-

garren kanporaketan ariko dira: beraz, otsailaren erdialdetik aurrera. Alkizako Erniope, berriz, hilaren 19an ariko da lehendabizi, Mallabiaren aurka. Halere, txapelketaren lehenengo norgehiagokak datorren larunbatean izango dira. Lehenengo kanporaketan 16 talde ariko dira haien 6 pilotariekin, hiru mailatan banatuta, eta irabazle hauetako bi eskola, Aurrera-Saiaz eta Zazpi-Isturriren aurka aritu beharko dira. Esan ere, Erniope irabaziz gero, Aurrera-Saiaz aurka aritu beharko dela otsailaren 16an.

Guztira, 24 pilota eskola ariko dira, eta horien artean, Gipuzkoako 7 eta Nafarroako 6. Pilota eskola

hauetako izango dira, ziurrenik sendoenak eta gogorrenak. Partida guztiak ez dituzte Hernanin jokatu, eta hori zehaztuz joango dira. Ostiralean, larunbatean edo igandetan jokatu dituzte denak.

'www.berria.info'-n gehiago

Urtero bezala, pilota eskola bakoitzak jokatzeko dituen hiru partidetan lortutako guztiak kontatuko dituzte, eta puntuetan bihurtuko. Beraz, gehienez, jardunaldi bakoitzeko 66 puntu lor daitezke (hiru partidak irabazita).

Aurtengo antolatzaileak Hernanin taldea eta EHPK dira. Informazioa www.berria.info webgunean eskura daiteke.



Ikaztegietan ere Aldarriaren alde

IKAZTEGIETAN » EAE-ANVn aterako duen aldarriaren aldeko atxikimendu bilketa egin zuten ikaztegietan ere eta 20 lagunetik gora eman zuten atxikimendua. Aldarriaren esanetaz, EAEk Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan parte hartuko du. «Independenziaren aldeko mezua Espainiara eramateko konpro-

misoa hartu dugu, Euskal Herria nazioa dela adierazi eta Euskal Estatua sortzeko bidean bat egiten dugun guztion ahotsa entzunarazteko», adierazten da bertan. «Manifestuaren bitartez, Euskal Herriaren eskubideen alde lanean ari direnei dei egin diegu gurekin bat egiteko, eta independenziari bai esateko». HITZA

Saharara produktuak bidaltzeko aukera dago

Alegia » Dilistak, azukrea, konpresak, hegaluzea eta arroza ikastetxeetan edo udaletxean utzi daitezke hilaren 18ra arte.

ERREDAKZIOA

Aurten ere, Tolosaldean, abendu eta urtarrila aldera *Piztu Itxaropena* izenez ezagutzen den kanpaina jarri dute martxan. Jakina denez, kanpaina honen helburua saharar errefuxiatu kanpamentuetara eramateko elikagai bilketa burutzeko da, eta Alegian epea ireki dute.

Aurten bilduko diren elikagaiak hauek dira: dilistak, hegaluzea, azukrea, konpresak eta arroza. Elikagai eta produktu hauek Alegiko eskoletan edota udaletzeko Gizarte Zerbitzuetan utzi ahal izango dira gaurtik aurrera, hilaren 18ra bitarte.

«Ezin dugu ahaztu, guretzat gutxi dena haientzat asko bihurtzen dela», Alegiko Udaleko Gizarte Zerbitzuak gogoratu duen moduan. Beraz, lagundu nahi dutenek nahi dutenean dute aukera erositateko esandako lekuetan uzteko, eta honela behar handiagoa dutenei laguntzeko.

Ikastaro berriak izango dira otsailetik aurrera

Alegia » Gozogintza, pilates, orientazioa eta latindar dantzak ikasteko aukera izango da Kultur Etxean eta Gure Etxean.

ERREDAKZIOA

Alegian otsailean bost ikastaro jarriko dituzte martxan. Gozogintza, pilates, orientazioa eta dantzak landuko dituzte, Kutxaren laguntzaz.

Gozogintza ikastaroa Cebancideak eta Alegiko Udalak antolatuko dute eta Gure Etxea elkartearen laguntzaz. Otsailaren 6tik apirilaren 30a arte (30 orduz). Asteazkenetan izango da 18:00etatik 20:30era. Ordaindu beharrekoa, berriz, 30 euro. Izena hilaren 25a arte eman daiteke.

Pilates ikastaroak

Pilates I. maila Kultur Etxean egingo dute otsailaren 7tik abendura arte, ostegunetan 18:00etatik 19:30era bitarte. Ikastaro honetan ariketa zehatzak egingo dituzte gorputz jarrera egokiak, indarra eta malgutasuna lantzeko eta bizi kalitatea hobetzeko.

Pilates II. maila egiteko aukera ere zabaldu dute, Kutxaren bidez. Hau ere Kultur Etxean izango da otsailaren 12tik abendura arte, asteartero, 18:00etatik 19:30era.

@ Eztabaida. Azken hila-beteotan hainbat lapurretara egin dituzte Tolosaldean: Alegian, Orendainen, Iruran azken astean... Dirudienez, lapurrek badakite non sartu eta nola. Zer irizti duzu? Zer-bait egin daiteke hau ekiditeko? Zer bilatzen dute? Eman zure iriztia gure webgunean eta irakurri besteena ere!

www.tolosaldeko hitza.info

Orientazioa eta dantza

GPSa eta orientazioarekin lotutako ikastaroa Kultur Etxean izango da apirilaren 1, 2, 3 eta 5ean, 19:00etatik 21:00etara. Azken egunean ibilaldi bat egingo dute. GPSa erabiltzen ikasiko dute, besteak beste.

Latindar dantzak Kultur Etxean izango dira otsailaren 9an hasita, abendura arte, larunbatero, 11:00etatik 12:30era.

Azken lau ikastaro hauetan izena emateko bi aukera daude: www.begira.net webgunean edo Kultur Etxean, datorren ostiraletik hilaren 23ra bitarte.

» IKASTAROAK

- **Gozogintza.** Gure Etxea elkartearen, otsailetik aurrera.
- **Pilates I, eta Pilates II.** Otsailetik abendura arte, astean behin.
- **Orientazioa.** Apirilaren zehar.
- **Dantza latinoak.** Otsailetik abendura arte larunbatero.
- **Izen-ematea.** Kultur Etxean edo www.begira.net webgunean, ostiraletik hilaren 23ra bitarte.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Hezitzaileak.** Tolosako haur eskola batek lanposturako haur hezikuntzako hezitzaileak behar ditu. Interesatuak bidali curriculumara 289 posta kutxara.

SALGAI

- **Autoa.** Volkswagen Passat autoa. 2004 urtekoa. 1.900 TDI. 130 zaldi. 620 72 76 91.
- **Egurra.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 755 57 62.

E Elkarrizketa

HELENA ORKOIEN › Sopranoa



HITZA

«Eszenatokira sartzen naizenean erlaxatu edo lasaitu egiten naiz»

Ibarra » Euskal Herritik Madrilerako bidaia egin zuen Helena Orkoi, eta bertan kantu lehiaketa irabazita itzuli zen bertatik.

ASIER IMAZ

Azaroan izan zen Espainiako Musikari Gazteen lehiaketa Madrilen (Espainia). Ahots lirikoen mailan Helena Orkoi (Tolosa, 1986) ibartarra izan zen irabazlea.

Zer sari irabazi zenuen eta zertan erabiliko duzu?

6.000 euroko saria irabazi nuen. Baina diru horrekin bira bat egin behar dut. Balear Uharteetara (Herrialde Katalanak) eta Granadako (Espainia) Jaialdira ere gonbidatu naute; zerbait berezia egiteko gonbidatu naute, hala ere oraindik ez dakit ezer asko honen inguruan. Gero datak jarriko dizkide eta ongi badatorkit joan egin beharko dut.

Zein pauso eman zenituen behin

lehiaketan izena eman ondoren eta Madrilerira iristean?

Pianista zerrrenda bat eskaintzen dizute eta zuk bat aukeratu behar duzu; Javier Gomez de Lera aukeratu nuen nik. Asteazken batean joan nintzen Madrilerira eta berarekin entsegu bat egin nuen Eskoriatan. Hurrengo egunean, beste entsegu bat egin genuen finalerdien aurretik. Bi pieza kantatu nituen, eztarria berotzeko adina. Gero, eszenatokian kantatu ondoren denbora dexente egon ginen emaitzaren zain.

Ostegunean finalerdia eta ostira-lean finala. Bi egunetan egiten da beraz lehiaketa.

Bai, amasa hartzeko denborarik ere ez duzu.

Zazpi finalerdietan eta lau finalean.

Denbora bat zain egon ondoren gure mailako emaitzak esaten hasi ziren. Hiru esan zituzten eta nire izena azkena esan zuten. Ez nuen uste esango zutenik, urte batzuetan hiru bakarrik pasa baitira finalera. Batzuetan bi bakarrik ere aukeratu dituzte, ez dago finalista kopurua zehaztuta. Maila handia zegoen beraz urte honetan, abeslari oso onak zeuden.

Eta zure izena esan zutenean?

Oso pozik eta hurrengo eguneko prestatzeko hasi ginen. Urduritasuna ere lehen momentutik piztu zitzaidan. Obra guztien zerrrenda pasa nien, gutxienez ordubeteko saioa osatzen zuten obrak ziren eta denetik zegoen bertan: opera, espainiar kantuak, zerrrenda horretatik batzuk aukeratu zizkidaten eta hurrengo egunean, 19:00etatik aurrera kantatzera. Finalean 20 minutu edo kantatu nituen.

Batere lorik egin al zenuen gauean?

Goizeko zazpitan esnatu nintzen ahotsa probatzeko eta nahiko goian nengoela ikusi nuen. Gero telebista ikusten egon nintzen pixka bat hotelean. 12:00etan pianistarekin entsegu bat egin nuen eta ondoren bazkaltzera. Ez nuen ezer jan, janariarekin jolastu besterik ez nuen egin; urduri negoen. Horrelakoetan ez naiz alde batetik bestera gelditu ezinik ibiltzen, sarbelean jartzen zait urduritasuna, ondorioz, ez nuen jateko gogo handiegirik.

Nola berotu zenuen ahotsa?

Ahots bakoitzaren arabera egiten dira beroketak. Behartu gabe, arintasan azkar bat egiten duzu edo lehiaketan kantatu behar duzunaren arabera beroketa.

Kantatzera igo zinenen, jende asko al zenuen zuri begira?

Aretoa bete zegoen baina nik ia inor ez nuen. Nire Madrileko osa-

ba batzuk, nire amaren lagun bat eta nire mutil-laguna. Gero bertan egiten dituzun lagunak baina ia inor ez nuen ezagutzen. Egia esan berdin zait, bai baitakit kanpoan gehiago kantatu beharko dudala eta egoera hori berriro ere errepikatuko dela.

Zure txanda iristean?

Oso konzentratu aurkitzen nintzen. Burbuja baten barnean bezala nengoen. Irten aurretik ate ondoan jarri nintzen, lasaitu eta aurrerokoaren azken zatia entzun nuen, ondoren amasa hartu eta irten egin nintzen. Behin eszenatokian, erlaxatu edo lasaitu egiten naiz.

Zer sentitzen duzu kantatzean?

Kantatzen ari naizenean pentsatu behar dudanez pentsatzen dut; esaten ari naizenez, proiektatzen ari naizenez eta adierazi nahi dudanez. Obraren zati bakoitzean kantatzen dudana sentitu eta hori azaldu behar dut, ez ahotsarekin bakarrik, keinu eta espresioez ere bai. Gauza asko dira, oso konplexuak eta denborarekin hartzen direnak.

Lehen kanta amaitsu ondoren nola aurkitzen zinen?

Oso gustura aurkitu nintzen. Aretoak ere eragin handia dauka horretan, zure ahotsa txoko guztiara iristen dela ikusten duzunean oso ondo sentitzen zara.

Eta amaitsu ondoren?

Kantatu ostean hotelera itzuli ginen, emaitza jakin gabe eta oso urduri. Kantatu aurretik baino, ondoren jartzen naiz urduri. Hurrengo eguneko goizerarte itxaron behar genuen. Oso gaizki pasatu nuen, ez nuen batere lorik egin. Nire irakaslea ere berdin zegoen: oso urduri. Hurrengo egunean 12:00etan itzuli ginen eta itxaroten egon ondoren, lehenik bigarren saria esan zuten eta gero lehen saria. Oso pozik jarri nintzen, ez nuen sinisten.

Gazteena zeu zinen gainera.

Bai. 20 urte nituen orduan eta beste gehienek 25. Horrek kantuan denbora gehiago daramatela esan nahi du.

Zer eskatzen diozu etorkizunari?

Opera batean kantatzea gustatuko litzaidake, orkestrabatekin eta solista duain batekin.

Kanturako armetsetako lekua?

Milango (Italia) Eskala.

H Hilberria

MARIA BERASATEGI ARRIETA

Bi begi ttiki horiekin askotan gaituztu poztu hitz gutxierekin izan arren asko esan baitiguzu. Kantu eta bertsoetan irribarra ezpainetan gogoratuko zaitugu lau kimu berri hauek zu.



ZEGAMA
2008ko urtarrilaren
8a

Ainara, Mattin, Txoan, Jatsu

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Barriolak eta Bengoetxeak lehenengo pausoak eman dituzte binakakoan

Binakako Txapelketa »

Hasi da txapelketa eta Bengoetxea VI.ak eta Barriolak lehenengo partidak jokatu dituzte

NAIARA GARZIA

Asteburu gazi-goza izan da Leitzako pilotarentzat. Binakako Txapelketa hasi berri da eta asteburu honetan Bengoetxea VI.ak galdu egin du, eta Barriolak, aldiz, irabazi. Halere, oraindik partida asko jokatu beharko dituzte final-laurdenetako ligaxka honetan.

Bengoetxea VI.ak Ruizekin jokatu zuten larunbatean Xala eta Pascualen aurka eta 22-17 galdu zuten. Barriolak, aldiz, herenegun jokatu zuten, Gonzalezekin Koka eta Beginoren aurka (22-20 irabazi zuten).

Lehenengo norgehiagokak

Ordu eta erdiko pilota partida jokatu zuten Bengoetxea VI.ak, Ruizek, Xalak eta Pascualek larunbatean, eta ia zortzirehun pilotakada eman zituzten. Ondorioz lau pilotariak lehertuta gelditu ziren.

Barriola eta Gonzalezek, berriz, herenegun ezusteko ikaragarria eman zuten 20-11 galtzen zihoztelajarraian II tanto egin baitzituzten, partida irabaziz.

Norgehiagokak 2 zati izan zuten, lehenengoan ezbairik gabe Koka eta Begino ia zuzenean garaipeñera iritsi ziren. Norgehiagokak jada irabazitatzutenean, or-



Atzo Beotibarren txapelketa honen barruan Eugi eta Lasa III.a Olaizola I.a eta Belokiren aurka lehiatu ziren. A. IMAZ

dea, Gonzalez berpiztu egin zen eta Azkaineko eta Leitzako pilotariak zuzenean partida irabazi zuten.

Binakako Txapelketa

2008. urteko Binakako Txapelketa abenduaren 27an aurkeztu zuten BBVA banketxeak Bilboko Alde Zaharrean duen egoitzan eta bertan txapelketan parte hartuko duten pilotari guztiak izan ziren: Begino, Zearra, Barriola, Olaizola I.a, Bengoetxea VI.a, Koka, Beloki, Olaizola II.a, Patxi Ruiz, Gonzalez, Pascual, Titin III.a, Martinez Irujo, Xala, Lasa III.a eta Laskurain.

Txapelketa urtarrilaren 4ean

hasi zen, Titin III.a, Laskurain eta Olaizola II.a eta Zearraren arteko norgehiagokarekin. Aurrena pilotariak final-laurdenetako ligaxka jokatu dute eta guztira 32 izanen dira jokatu dituzten norgehiagokak.

Ondoren finalaurrekoetako ligaxka hasiko da, martxoaren 2an. Azkenik, finala martxoaren 30ean jokatu dute, oraindik zehaztu gabe dagoen pilotalekuren batean.

Binakako Txapelketako lehenengo asteburua pasa da eta hauek dira aste hauetan zehar lehiatuko diren bikoteak: Asegarcetik, Olaizola II.a-Zearra, Olaizola I.a-Beloki, Bengoetxea VI.a-Ruiz, Koka-

Begino. Aspetik, berriz, Titin III.a-Laskurain, Irujo-Lasa III.a, Gonzalez-Barriola eta Xala-Pascual.

Beotibarko partida, atzo

Atzo txapelketa honen barruan Eugi eta Lasa III. a Olaizola I.a eta Belokiren aurka lehiatu ziren Beotibar Pilotalekuan. Lasak Irujorekin jokatu behar zuen arren, Eugik ordezkatu zuen. Beloki eta Olaizola I.ak irabazi zuten, markagailua 22-16 gelditu zelararik. Belokik partida erdian mina hartu zuen eskuinteko eskuan eta honi esker aurkariak markagailuari itxura pixkabat eman zioten, baina ez zuten irabazterik lortu.

Liderrari irabazi eta 3 puntu lortu ditu Aurrerak, urteari hasiera ona emanez

Futbola » 1-0 irabazi zion lehenengo doan Lagunak taldeari larunbat goizean Arkixkilen jokatu dako partidari

N. GARZIA

Azkenaldiko bolada txarra amaitu da Leitzako Aurrera taldearentzat oraingoz behintzat, eta ezin hobeto hasi dute urtea leitzarrek larunbatean liderra den Laguna taldearen aurka jokatu dako partida irabazi baitzuten. Honela, aspaldiko partez Aurrerak 3 puntu eskuratu zituen asteburuan.

Aurrerako arduradunek azaldu dutenez, «4 partida generamatzen galtzen, hau urte hasierako lehenengo partida izan da eta liderrei irabazi ondoren, pozik gelditu ginen». Leitzarrei garaipena eman zien gola Joanes Zeballosek sartu zuen, partida amaitzeko 5 minutu inguru gelditzen zirenean.

Ezustekorik ere izan zen Arkixkilen, Lagunak taldeko futbolari batek txorkatila hautsi baitzuten.

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 675390 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarar autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320



Eguberrietako finalean, bi leitzar

LEITZA » Urtarrilaren 5ean Lizarrako Eguberrietako Txapelketako finalak jokatu zituzten, eta bertan bi leitzarrek hartu zuten parte: Mikel Sagastibeltza Lasartek alde batetik eta Iñaki Iparragirrek bestetik. Sagastibeltza Lasartek Landerrekin jokatu zuen, Mitxelena eta Larrearen aurka hasibe-

rrien mailan eta 4 tantorengatik galdu zuten (18-14). Iparragirrek, berriz, seniorretan jokatu zuen Urtasun pilotariarekin. Hauek Armendariz eta Gironesen aurka aritu ziren eta 22-10 irabazi zieten. Argazkian, Mikel Sagastibeltza eta Iñaki Iparragirre Eulate eta Urrizelki pilotariekin. HITZA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak jakinarazi nahi du, astelehenetan eta asteazkenetan 19:30etatik 21:00etara, 2008 urteko mendi federatu txartela ateratzeko aukera izango dela.

■ **Tolosa.** Mikel Urdangarinen kontzertua izango da Leidor aretoan ostiralean, 20:30ean *Anek idatzi dit zutaz* diskoa aurkezteko. Sarrerak salgai daude Servikutxan, Kutxaneten edota www.kutxa.net helbidean, 10 eurotan.

■ **Tolosa.** Sahararrei laguntzeko janari bilketa abian da eskualdean. Arroza, dilistak, hegaluzea, azukrea eta konpresak utzi behar dira aurtengo kanpainan. Maxi Eroski, Eroski Center edota BM supermerkatuetan eta eskualdeko udal txetxe eta Kultur Etxetan utzi daitezke.

■ **Tolosa.** Bidart-Uztartize mendi ibilaldia antolatuta du Alpino Uzturre mendi elkarteak iganderako. Izen-ematea, elkartearen bertan edota 943 652789 telefono zenbakian egin ahal da.

■ **Zizurkil.** Txuri Urdinera irteera urtarrilaren 12an Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoentzat. Izena eman behar da Zizurkilgo udal bulegoetan.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Charo Berra Erroren *Zuhaitza: bizia eta kolorea* pintura erakusketa dago ikusgai Aranburu Jauregian. 17:30etik 20:30era dago irekita, jaieguna eta astelehenetan izan ezik.

■ **Tolosa.** Jabier Villarreal Armenarizaren *Paralelo 42* argazki montajean erakusketa ikusgai dago, Aranburu Jauregian 17:30etik 20:30era bitarte, jaieguna eta astelehenetan izan ezik.

■ **Alegia.** Ana Jesus Ansorena tolosarraren erakusketa dago ikusgai Alegiko Jubilatuen tabernan. Hilabete osoan zehar izango da bere zeramika lanak ikusteko aukera, asteartetik igandera bitartean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretza, 1. Telefono zenbakia: 943 67 36 49.

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.

■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.



Ezkerrean, Helduak taldeko gazteak, Altzon. Eskuineko argazkian, berriz, Koxkorrek taldeko gaztetxoak, Agurainen. HITZA



Eguberrietan elkarrekin

Aisia » Kirikiño aisialdi taldeko gazteak kanpaketan izan dira Eguberrietan: Agurainen, Loiolan eta Altzon

ERREDAKZIOA

Eguberrietan Kirikiño aisialdi taldeko kideek kanpaketak izan zituzten abenduaren 26tik eta 31era, eta ederki igaro zuten, bai gazteek bai eta begiraleek ere. Koxkorrek taldeko (Lehen Hezkuntza 5. eta 6. mailak) 80 neska-mutil Agurainen izan ziren; Bizkorrek taldeko (DBH1 eta 2) 90 neska-mutil Loiolan, eta Helduak-eko (DBH3 eta 4) 50 neska-mutil Altzon.



Bizkorrek taldeko kideak. Hauek Loiolan igaro zituzten Eguberrietako egunak. HITZA

A Agurrak



Zorionak!

Afrika (Martutene). Urte bat. Zorionak etxekoan partetik zure urtebetetzean.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzan: Udaletxeko bulegoa

agurrak